

## Burokratak

«Ez naiz gezurzalea eta ez dut gorrotorik baina gezurra gorroto dut eta horregatik gezurretan ari denak gorroto nau».

(Sinead O'Connor)  
Kultura mendebaldarrak sortutako ezagutzaren zatiketaren ondorioak ditugun adituak burokraten arbasoak dira. Max Weberren arabera 'Buridaneko as-toak' diren irakasle-funtzionariak ditugu menperatez etorkizun batetan bizitzeko garrantzitsuen botereek erabilitako tresna garrantzitsua: Hezkuntz burokratak.

Beren bulegoetatik gizarte erabakiak ordezkatzan ahaletzen dira beren protagonismo faltua bezain maltzurra areagotzen duten bitartean. Ez dira gauza ezer aldatzeko dagoenaren berregintzan oinarrituta baitaude eta, jakina, oinarri hori gabe ez dira ezer. Estatuaren morroiak izanik gizarteak dituen bete beharreko lanetarako ez dira batera eraginkorrak baina Estatuak behar ditu beraiek Estatu bezala. Honek boterea luzatzen die, beraiek, ordainez, gizarte beharren gainetik bera defendituko dute.

Burokraziari buruzko diskurtso hau ikerbidé orokor gisa aski ezaguna izan arren (ikus R. Aron. *La sociología alemana contemporánea*, Paidós, Buenos Aires, 1965, 109/170 or) eta, zehazkiago, Espainiako estatuan batere susmagarriak ez diren ildo honetatik egindako emaitza emankorrek aspaldidanik argitaratu badi-ra ere (ikus, besteak beste, R. Diez Hochleitner, A. Nieto etab. *Estudios sobre la burocracia española*, Inst. de Estudios Políticos, Madrid, 1974.) burokraziaren egungo aurpegia dugun funtzionaritzaren inolako erreferentzia kritikorik kontutan hartu gabe, aukeratua izaten da behin eta berriro gizarteak dituen zeregin inportanteenei ekiteko.

Azken adibide gardenena dugu hilabete honetan bertan Eusko Legebiltzarrak onartu nahi duen 'Irakaskuntz gorputzen legea'. Ezagunagoa, eta zoritxarrez oraindik antzerako gaurkotasunez ordea, Unibertsitate mailan bizitutako 'lan kontratuaren bidezko irakasleen aferra'. Exenplu hau medio funtzionaritzak berekiko dakarren kaltea azalaraztea errazago izango delakoan hiru puntu besterik ez ditut gaurko honetan aipatuko.

1.- *Funtzionariaren botere ezkutua (Burokrazia) gizarte multzoen erabakiaz zein premiez gain inposatu egiten da.* UPV/EHUn horrelaxe gertatu zaigu. Izan ere 1987ko Martxoaren 18ko Klausuran gehiengo handiaz onartu zen Espainiako LORUn ez zegoen baina hemengo goe-rari legokiokeen irakasle eredu berri bat sortzearena. Hala eta guztiz ere, Unibertsitatean funtzionariez osatutako gestio organo gorenak ez dute inoiz bideratu erabakitze eremu funtsezkoa den Klausura hautatu zuena. Aitzitik, ahaletzen eta bost egin dira funtzionaritzatik at (hots,

ez funtzionaritzaren aurka) egon zitekeen irudi hura galerazteko. Arrazoia sinplea da: ez dute onartu nahi izan beren botere ezkutua erabakitzeko arriskuan jartzeara. Ondorioz, funtzionaritzaren prozedura lotsagarri bati irekidura eman zaio endogamia ikarragarriaz (ia plaza guztietarako hautagai bat besterik ez da aurkeztu) benetako beharren gainetik plantilak betearaziz.

• Ez da harriztekoa, beraz, prozedura ordezkatzaila honi aurre egin nahian, orain arte inongo Errektoregorik bete ez duen Klausura aginduari eutsiz egun intsumisioa aldarrikatu behar izatea. Baina, kontuz, ez dezagun ahanzt arazoaren jatorria!

2.- *Funtzionariak erabakitze tenorea*

### FUNTZIONARIEK, NEUTRALITASUNA ERAKUTSI ARREN BAKAR BATZUEN PRIBILEGIOTAN OINARRITUTAKO EGOERAREN BERREGINTZA SUTSUKI DEFENDITZEN DUTE.

*aukera soilik bihurtzen du bere ordezkatzailakeria areagotuz.* UPV/EHUn legeak aipatzen ez duena azpimarratzen digute etengabe, ez ordea legeak zuzenean debekatzen ez duena eta, bada, posibilita leza-keen hura. Beste hitzetan esanda; funtzionaritzatik kanpo ez dela dagoen legeterian ezer aipatzen entzun eta irakurri behar izaten dugu. Estali nahi omen da, halere, Tribunal Constitucional delakoan Unibertsitateen Autonomiaren alde emandako epaiak (besteak beste, 87/2/27an LORU dela eta, Eusko Jaurlaritzaren kontrakoa) edota beste Unibertsitateetako Estatutuetan, lege filtro guztia gaunditurik, funtzionari ez diren irakasleei buruz diotena ('Estatutos Da Universidad de Santiago de Compostela' 104,1. artik. 1985/10/8an legezaturik). Guzti hori kontutan harturik argi eta garbi geratzen da Unibertsitateak berak irakaslegoaren berezko eredu indarrean ezarri gero ez Eusko Jaurlaritzak, ez Eusko Legebiltzarrak ezta Madrilgo Erakundeek ere izango lukete onartutakoa ezabaterik. Horregatik ez dute bertan bideratu nahi izaten. Funtzionaritzan oinarritutako gestio botereek ez diote bide-

ragarritasunik emango legeak zuzenean aipatzen ez duen horri, premiazkoa nahiz bidezkoa izanik ere.

3.- *Funtzionariak, neutraltasuna erakutsi arren bakar batzuen pribilegiotan oinarritutako egoeraren berregintza sutsuki defenditzen dute.*

Gure adibideari helduz, funtzionari botereek UPV/EHUn despediturik ez dagoela diote. Nonbait kaleratzeak naturalki azaldutako ezusteak direlakoan, edota hori sinesterazi guran behintzat. Bi ñabardura hauek adieraztea ahaztu egiten omen zaie:

Bat; hiru urtetan zehar Errektoregoak defenditutakoaren kontra eta egun irmo den ebazpen baten arabera, UPV/EHUn lan-kontratuaren bidezko irakasle multzo inportante bat (ia hirurehun irak.) egon dela eta ez dela, ordea ezertxo ere gertatu. Hori ukazinezko errealitatea dugu.

Bi; aferra lan-kontratu haien amaiera izan zenean jukeak kontratuak mugatuak zirela esan zuen (oraindik errekurrituta badago ere) eta beraz, patriari (Errektoregoari kasu honetan) zegokion kontratuak berrestea ala bertan behera uztea. Azken haxe erabaki zuen, despeditzea alegia, eta beste kontratu askoz ere okerrago eskaini. Batzuk sinatu genuen despedituta izan eta gero aurrekoarekin konparaturik guztiz txarra zen kontratu administratiboa. —zergatik?, argi eta garbi, beligeranteki aukera bakartzat kaleratzea besterik ez bait zitzaigun ematen. Beligeranteki diot zeren beste aukeren artean jukeak azken ebazpena eman arte aurrekoan bezala segitzea zegoelako. Are gehiago, Barberarekin horrela segitzetik posible izan zen bitartean despido hauekin hori ere galerazi ziguten. Funtzionari izpirituak ez du onartzen inplikaziorik eta erabat neutrala azaldu nahi izaten duen bitartean legeteriarren hitza estu bezain bortizki defenditzen digu.

Dena dela, Euskal Herri honetan gizarte zibila kementsua denez aipatutako funtzionaritzaren izpiritua ez da, oraingoz behinik behin, gehiegi gorpuztu eta nahiz Euskal Irakaskuntzako bide bakartzat horixe eman nahi edota Unibertsitatean bertako premia zein erabakiaz gain gaztelaz ongi diotenez 'Política de hechos consumados' ezartzen saiatzen bada ere, aferei bideragarritasuna eman ahal izateko joera badago egon. Horregatik, eta gure praktikatik ikasi ahal izateko hain zuzen, gaurko honetan bukatu nahi dut aldarrikatzen baietz, honetarako ere bidea bada-goela eta, behar den bezala debatitzeko nahiz irtenbidea diseinatzeke pronto egon beharra dagoela. Orain burokratek esan dezaten: eta ez, zergatik ez?

FITO RODRIGUEZ  
EHU-KO IRAKASLEA

## BERRIAKZIRI




RICARDO SIBRIAN  
Farabundo Marti Iratiko zuzendaria  
EGIN

«Gure irratia demokraziari atek zabaltzeko borroka tresna da»



JOKIN URIE  
Realeko jakalaria  
DEIA

«Garbi dago taldea gaztetu egin behar zela eta us-te dut Toshack hori ausardiaz egiten ari dela»



JAIME IGNACIO DEL BURGO  
Nafarroako PPKo diputatua  
DIARIO 16

«Espainia maitatzea proiektu nazional handi batekin bat etortzea da. Baina ez dezagun nahastu nazioa Estatuarekin. Maita dezagun den moduan: anitza eta plurala bere batasunean»



IASSER ARAFAT  
PAEko presidentea  
EL PAIS

«Estatuaren negoziatorako prozesuak aurrera egingo balu, gertu nengoke PAE bera arriskuan jartzeko»

## ZAKILIXUT

© Olariagak

